




Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ETA HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Vitoria-Gasteizen, 2008ko urtarrilaren 15 ean.

BILDU DIRA

Alde batetik, José Antonio Campos Granados jauna, haur eskolak kudeatzea eta hiru urtetik beherako haurren hezkuntza eta asistentzia zerbitzuak helburu dituen HAURRESKOLAK Partzuergoaren (aurrerantzean HAURRESKOLAK) lehendakaria, Partzuergoaren Estatutuen 19. artikulua aitortzen dizkion eskumenak erabiliz.

Beste aldetik, Iñaki Vicuña de Nicolás jauna, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (aurrerantzean DBEB) zuzendaria, Bulegoaren ordezkari ginez, otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 15. artikuluan xedatutako eskumenak kontuan hartuta bere izendapena egin zuen 83/2004 Dekretuari jarraiki (2004ko maiatzaren 14ko 90 zk.ko EHAA).

Bakoitzak bere erakundearen izenean eta ordezkari gantz jarduten du, eta biek aitortzen diote elkarri Lankidetzaren Hitzarmen hau izenpetu ahal izateko jarduteko legezko gaitasuna. Era berean,

ADIERAZTEN DUTE

HAURRESKOLAK Partzuergoa Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eraturako erakunde publiko bat dela, eta bere helburuetako bat dela Haur Eskolen eta hiru urtetik beherako haurren hezkuntza eta asistentzia zerbitzuen kudeaketa integrala egitea Partzuergoa osatzen duten udalen lurralde eremuan. Partzuergo hau eratzean, estreinakoz lortu da, aitzindari izanik, EAEn adin horretako haurrek eta familia guztiek dituzten premiei behar bezala eta kalitatearekin erantzuteko moduko eredu bat izatea, bertakoa, berariazkoa eta originala.



- II. Partzuergoak kudeatzen dituen haur eskolek ondoko bi arlo hauetan jardun nahi dutela, biei erantzunez eta biak modu orekatuan landuz eta uztartuz: hezkuntza arloa eta arlo soziala.
- III. HAURRESKOLAKek nortasun juridiko propioa eta askea duela eta bere berariazko helburuak bete ahal izateko jarduteko gaitasun duela, eta bere administrazio ahalekin artean daudela antolaketarako, programaziorako edo plangintzarako ahalak. Horiez gain, bere eskumenen artean dago beste administrazioekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea, Partzuergoaren xede nagusiari dagozkion gaitan.
- IV. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 10. artikuluko 1. paragrafoak xedatzen duenez, DBEB zuzenbide publikoko entea dela, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoak dituela, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko dituela bere eginkizunak. Eginkizunak honako hauek dira funtsean:

Legeak DBEBri aitortzen dizkion eginkizunez baliatzeko, Bulegoak honako lan edo jarduerak gauzatzen ditu, besteak beste:

- Datu pertsonalen tratamenduaren gaia dela eta, euren eskubideen gaineko informazioa ematea pertsonen eta babesa ematea eskubide horietaz baliatzean.
- Legearen kontrako jarduerak ikertzea eta gertatu diren arau-haustek ebaztea, hala badagokio, eta datu-tratamendua indarrean dauden legeetara egokitzeko beharrezko neurriak hartzeko eskatzea.
- Datuak Babesteko Erregistro batean jasotzea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta erakundeek egiten dituzten datu pertsonalen tratamendu guztiak. Datuak Babesteko Erregistro bat mantentzea, bertan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek eta zuzenbide publikoko erakundeek euren fitxategiak inskribatu ditzaten, eta bertan aitortu ditzaten zein datu pertsonal mota biltzen eta tratatzen dituzten euren helburuak betetzeko.
- Datuak babestearen arloan herritarrek eta erakundeek egiten dizkioten mota guztietako kontsultei eta txostenei erantzutea.
- Datuen babesaren gaineko kulturaren zabalkundea egitea, gizarteko talde ezberdinak sentsibilizatuz eta prestakuntza nahiz jardunbide egokiagoen erabilera bultzatuz erakunde publikoetako langileen artean.



- V. Aipatutako Legearen 2.1 artikulua xedatzen duena kontuan hartuta, herri-administrazioen menpeko edo haietara loturiko edonolako erakunde publikoek sortutako edo kudeatutako datu pertsonalen fitxategi guztiei ezarriko zaie Lege hau, fitxategiak zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko sortutakoak badira.
- VI. Erakunde biak konturatzen direla garrantzi handia dutela alor honetan erabiltzen diren datu pertsonalak, gurasoekin dagoen harreman bereziak eta legea zehatz bete beharrak, baina baita ere ohore eskubidearekiko eta familiaren intimitate eskubidearekiko errespetua sakontzen duten jardunbide eta jokamolde egokiak indartzeko saiok ere. Horregatik denagatik, DBEBren eta Haurreskolak-en nahia da beharrezkotzat jotzen diren bitartekoak ezartzea eta jarduerak martxan jartzea, Haurreskolak-eko langileek datu pertsonalen babesaren arloko arauak ezagutu ditzaten eta arlo honetik behar bezalako sentsibilizazioa eta prestakuntza eskura dezaten.

Entitate biek, datuen babesaren arloan lankidetzan aritu behar diren jakitun, Hitzarmen hau izenpetzen dute eta ondokoa hitzartzen dute:

ESTIPULAZIOAK


LEHENA. Xedea.

Hitzarmen honen xedea da lankidetzarako esparru bat ezartzea DBEBren eta HAURRESKOLAKen artean, datu pertsonalen babesa sustatzen duten jardunbideak eta jokamoldeak indartzeko HAURRESKOLAKeko langileen artean.

BIGARRENA. HAURRESKOLAKen betebeharrak.

HAURRESKOLAKek honako jarduerak burutuko ditu:

- Honakoak aztertuko ditu:
 - Egun kudeatzen dituzten datu pertsonalen fitxategiak.
 - Prozedurak, horiekin zerikusia duen dokumentazioa, informazio fluxuak eta datu pertsonalen babesarekin zerikusia duten bestelako jarduerak guztiak, administrazio zerbitzuen nahiz eskolen funtzionamenduen arlokoak.
- Datu pertsonalak babestearen arloko araudiaren arabera egokitzea bertako datu pertsonalen fitxategien funtzionamendua, erabiltzen dituzten inprimakiak eta funtzionamenduko jardunbideak.




- Prestakuntzako edukiak diseinatzea eta datuen babesari buruzko laguntzako materialak egitea, bertako langile hauentzako egokituta: administrazioko langileak, zentroko koordinatzaileak eta hezitzaileak.
- Prestakuntza, informazio eta sentsibilizazio jardueren plan bat zehaztea eta gauzatzea bertako langile guztiei zuzenduta. Plana 2008ko urtarrila-abendua bitartean gauzatu behar da.
- Prestakuntza, informazio eta sentsibilizazio protokolo bat zehaztea eta gauzatzea langile berriak sartzen dienerako.

HIRUGARRENA. DBEBren betebeharrak.

DBEBk Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeei zuzendutako honako jarduerak gauzatu ditu:

- Aholku ematea datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen legedia betetzearen gainean. HAURRESKOLAKek edozein motatako kontsultak egin ahal izango dizkio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, eta honek irizpen bidez ebatziko ditu, indarrean dagoen legedia interpretatzeko eta ezartzeko dituen eskumenak erabiliz. Gai hauen inguruko aholkularitza izango da:
 - 1 Datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu eta ezabatzea, eta horretarako HAURRESKOLAKek egin behar duen xedapen orokorra.
 - 2 Datu pertsonalen fitxategien segurtasun neurriak betetzea, Segurtasun neurrien buruzko ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuan eta pasa den abenduan onartutakoan (argitarako gabe dago) xedatutakoaren arabera.
 - 3 Datu pertsonalen tratamenduen zerbitzuak emateko kontratuak egitea, eta kontratuek 15/1999 Legearen 12. artikulua ezarritako betekizunak betetzea.
 - 4 Herritarren eskubideen edukia eta eskubideak erabiltzeko moduak direla eta, aholku emango da herritarren atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideen erabilera bermatzeko.
- Datu pertsonalen tratamendua dakarten dokumentazio izapideen eta dokumentazio fluxuen diagnostikoa egitea HAURRESKOLAKen sareko hiru ereduzko zentrotan.





- HAURRESKOLAKek datuen babesaren arloan bertako langile talde hauentzako diseinatzen dituen prestakuntzako edukiak aztertzea eta balioestea: administrazioko langileak zentroko koordinatzaileak eta hezitzaileak.
- Prestakuntza saioak egitea, gehienez ere hiru saio, zentroko koordinatzaileei zuzenduta.
- HAURRESKOLAK datuen babesaren arloan jardunbide egokiak erabiltzen dituen erakunde bezala homologatzea eta aitortzea, hala badagokio.

LAUGARRENA. Jarraipen Batzordea.

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea eratzen da lau kiderekin. Hitzarmena izenpetzen duen alde bakoitzak bi kide izango ditu. Alde bietako edozeinek eskatzen duen bakoitzean bildu beharko da Batzordea eta gutxienez urtean bitan. Hona hemen Batzordearen eginkizunak:

- Hitzarmen honetan jasotako konpromisoen eta jarduera zehatzen jarraipena egitea, betetzen diren ala ez jakiteko .
- Hitzarmenaren ezarpenaren eta interpretazioaren gainean egon daitezkeen edozein gorabehera ebaztea.

BOSGARRENA. Hitzarmenaren iraupena eta Hitzarmena bukatzeko arrazoiak.


Hitzarmen hau izenpetu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean eta indarrean egongo da 2008ko abendura arte. Indarraldia luzatu egin ahal izango da, alde biek hala adosten badute, bertan jasotako jardueraren bat segitu ahal izateko edo bukatzeko behar den adina denbora.

Alde bietako edozeinek Hitzarmena bukatzea erabakitzen badu, idatziz jakinarazi beharko dio beste aldeari, eta jakinarazpena egin eta hiru hilabeteko epean bukatu egingo da Hitzarmena.

Alde biek adostu dute Hitzarmena bukatzeko arrazoiak direla bertan zehaztutako klausulak ez betetzea eta indarrean dagoen legediak xedatzen duena kontuan hartuta, gerta daitezkeen bestelako ez betetzeak.



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



Ados daudela adierazteko, alde biek izenpetzen dute Lankidetzaren Hitzarmen hau, bikoiztuta, hasieran adierazitako tokian eta egunean, eta Lankidetzaren Hitzarmenaren ale bana hartzen dute.

Iñaki Vicuña de Nicolás
Agencia Vasca de Protección de Datos-
Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aldetik

José Antonio Campos Granados
Haurrekolak-en aldetik